

Bizkaiak bat egin du Ulysses Data For Science proiektuarekin, ibai, itsaso eta ozeanoetan plastikoei eragindako kutsadurari aurre egiteko

Foru Aldundia eta Itsasmuseum, Bizkaiko Golkoan interes berezia duen kutsaduraren aurkako ekimen aitzindari honen parte izango dira

Proiektuak zientzia, teknologia eta dibulgazioa uztartzen ditu plastikoen iritsiera eta banaketa aztertzeke eta monitorizatzeko, erakundeen, enpresen eta gizartearen arteko lankidetzaz sustatuz

Bilbao, 2025eko urtarrilaren 27a. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Itsasmuseumek Ulysses Data For Science proiektuarekin bat egingo dutela iragarri dute gaur. Estuarioetan, ibaietan, itsasoetan eta ozeanoetan plastikoei eragindako kutsaduraren aurka borrokatzeke ekimen aitzindaria da Ulysses Data For Science, eta interes berezia du Bizkaiko Golkoko ekosisteman. Iragarpena Itsasmuseumen egindako ekitaldi batean egin da, Bertan izan dira Arantza Atutxa, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko saileko; Jon Ruigomez, museoko presidentea; Oihane C. Basurko, AZTIko ikertzailea; eta Jorge Ballester, Data For Science Fundazioko zuzendaria.

Proiektuaren helburua da itsasoko eta ibaietako ekosistemetan plastikoen iritsiera eta banaketa aztertzea eta monitorizatzea, eta, horretarako, tresna teknologiko aurreratuak zabaltzen ditu, erakunde publikoen, enpresa pribatuen eta, oro har, gizartearen arteko lankidetzaz sustatzeaz gain.

Ulysses Data For Science proiektuarekin bat eginez, Bizkaiak itsas kontserbazioarekin eta kutsadura plastikoen aurkako borrokaarekin duen konpromisoa berresten du, eta erreferente gisa kokatzen da ingurumenaren ikerketan eta ekintzan. Ekimen honen helburua mugimendu global bihurtzea da, eta hasiera batean Bizkaiko Golkoan zentratzen da.

Zientzia, teknologia eta dibulgazioa

2020an hasi zen Ulysses proiektuak zientzia, teknologia eta dibulgazioa uztartzen ditu, kutsadura plastikoen aurkako ekimenak sortzeko eta tokiko eta nazioarteko arintze estrategiak sustatzeko.

Arantza Atutxa foru diputatuak Bizkaiko Foru Aldundiak euskal itsasertzearen iraunkortasunarekin eta kontserbazioarekin duen konpromisoa azpimarratu du. “Gure ekosistemak babestea erantzukizun partekatua da, eta gizarteko sektore guztien parte hartze aktiboa eskatzen du”, azaldu du Atutxak.

“Ulysses proiektuarekin bat eginda, Bizkaia erreferente gisa kokatzen da ingurumenaren ikerketan eta ekintzan, lurralde berritzaile, jasangarri eta euskal kostaldearen eta Bizkaiko Golkoaren kontserbazioarekin konpromiso handia duen lurralde gisa dugun zeregina berretsiz”, azpimarratu du diputatuak.

Itsasmuseumeko presidente Jon Ruigomezek nabarmendu duenez, “jasangarritasuna eta gure itsasoak eta kostaldeak babesteko kontzientziazioa erabakigarriak dira museoarentzat; horregatik, Ulyssesekin dugun konpromisoa aliantza naturala da, ildo horretan jarraituz



animatzen gaituena eta berrikuntza, zientzia eta jasagarritasuna uztartzen dituen ekimen batekin bat egiteko aukera ematen diguna”.

Oihane C. Basurko AZTIko ikertzaileak, berriz, teknologiek itsasoko zaborra arintzeko duten zeregina azpimarratu du. “Teknologia funtsezkoa da gure ur-ekosistemetako kutsadura plastikoari eraginkortasunez heltzeko. Sateliteak, sentsoreak eta zenbakizko ereduak bezalako tresna aurreratuak erabiliz, gure kostalde eta ibaietako plastikoen banaketari eta dentsitateari buruzko datu zehatzak lor ditzakegu. Informazio hori funtsezkoa da esku hartzeko estrategia eraginkorragoak garatzeko eta gure ekintzen eragina ebaluatzeko”.

Jorge Ballester Data For Science Fundazioko zuzendariak nabarmendu duenez, “gero eta gehiago gara Ulysses proiektua babesten, zientziaren bidez gure itsaso eta ibaietara plastikoak iristea murriztea bilatzen duen asmo handiko ekimena baita. Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Itsasmuseum Bilbaoren atxikimendua urrats handia da gure helburua lortzeko bidean. Elkarrekin, gure ingurunearen babesean ezberdintasuna markatu dezakegu eta etorkizun hobea sustatu. ”

Plastikoen iritsiera aztertu eta monitorizatzen du

Proiektu honen ekimen nagusien artean nabarmentzekoak dira Ulysses Sea, flota teknologikoen eta datu satelitalen bidez Bizkaiko Golkoan plastikoen metaketak monitorizatzeko eta geolokalizatzeko aukera ematen duena, eta Ulysses Rivers, ibaietan plastikoak metatzeko puntu kritikoak identifikatzen dituen.

Gainera, Ulysses Schoolek eta Experiencek hezkuntza eta ingurumen-kontzientzia sustatzen dituzte hezkuntza-jardueren eta erakusketa interaktibo bidez, eta Ulysses Circlek, berriz, 4Retan oinarritutako ekonomia zirkularra bultzatzen du: murriztu, berrerabili, birziklatu eta berreskuratu.

2025eko martxoan, Ulyssesek hedapen fase berri bat hasiko du, Bizkaiko Golkoan 1.000 gailu baino gehiago instalatuta, Nerbioi, Deba eta Zadorra ibaien tarteetan zabor flotatzailea detektatzeko bideometria kamerak barne. Gainera, ontzi aurreratuak erabiliko dira, hala nola Rangerra, sentsoreekin hornitua; Traveller ontziak, GPSa duten gailu modular txikiak; eta Wooden ontziak, sentsorerik gabeko egurrezko ontziak, ahalik eta ontzi gehien osatuko dutenak. Tresna horiei esker, datu zehatzak bildu ahal izango dira jito-mapak eta itsasoko zaborra biltzeko estrategiak egiteko.

Proiektuak, Eusko Jaurlaritzaren babesarekin, aliantza publiko-pribatu baten alde egiten du, enpresak, unibertsitateak eta erakunde sozialak inplikatzeko dituen. Jorge Ballesterrek erakundeen lidergoaren garrantzia nabarmendu du, proiektua epe luzera inklusiboa eta jasagarria izango dela bermatzeko; Arantza Atutxak, berriz, Aldundiak euskal itsasertzaren osasuna hobetzeko duen konpromisoa berretsi du, gure ekosistemak zaintzearen garrantziaren ulermena eta kontzientzia zuzena sustatuz.